

Zer da ekosistema bat?

- a. Leku batean bizi diren izaki bizidunen multzoa eta haien arteko harremanak.
- b. Leku batean bizi diren izaki bizidunen multzoa eta leku horretako ingurune fisikoa.

Izaki bizidunen

arteko harremanak eratzen dira leku horretan.

- c. Izaki bizidunen multzo bat bizi den lekua.

Zer osatzen dute ekosistema batean bizi diren espezie bereko banakoek?

- a. Komunitatea. b. Ekosfera. c. Populazioa.

Zer osatzen du ekosistema bateko populazioen multzoak?

- a. Flora. b. Komunitatea bat. c. Fauna.

Zer osatzen dute ekosistema bateko animaliek eta landareek, hurrenez hurren?

- a. Flora eta fauna. b. Populazioa eta flora. c. Fauna eta flora.

Zein dira uretako ingurune bateko faktore fisiko garrantzitsuenak?

- a. Tenperatura, hezetasuna, lurzoru mota eta erliebea.
- b. Tenperatura, ur-lasterak, argia, hondo mota eta gatz disolbatuen kantitatea.
- c. Tenperatura, hezetasuna, hondo mota eta gatz disolbatuen kantitatea.

Zer ekosistemetan daude izaki bizidunak lurzoruaren gainean kokatuta eta airez inguratuta?

- a. Lehorreko ekosistemetan. b. Uretako ekosistemetan. c. Basamortukoetan.

Zer alde daude baso atlantikoko zuhaitzen eta baso mediterraneoko zuhaitzen artean?

- a. Baso atlantikoko zuhaitzak hosto erorkorrekoak dira, eta baso mediterraneokoak, hosto iraunkorrekoak.
- b. Baso atlantikoko zuhaitzak hosto iraunkorrekoak dira, eta baso mediterraneokoak, hosto erorkorrekoak.
- c. Baso atlantikoko zuhaitzak klima lehorrera egokituta daude, eta baso mediterraneokoak, klima hezera.

Zer ekosistematan bizi da katamotz iberiarra?

- a. Baso mediterraneoan. b. Belardian. c. Estepan.

Zer alde dago itsas ekosistemen eta ur gezako ekosistemen artean?

- a. Tenperatura. b. Gazitasuna. c. Argi kantitatea.

Zer itsas ekosistematan da zailena algak aurkitzea?

- a. Hondartzetan, olatu gehiago egoten direlako.
- b. Kostalde harritsuetan, sakonera gutxiak direlako.
- c. Itsas zabalean, ez dutelako nahikoa argi jasotzen.

